BEHAZUN-BESIKULA
(Zainketak eta gomendioak operazioaren ondoren)

1. Dieta biguna eta koiperik gabea egin. Jan maiz eta kantitate txikiak. Ez hartu alkoholik. Gerta liteke hasieran meteorismoa (haizeak) eta digestio astunak izatea, baina hori normala da.

2. Hurrengo egunetan tenperatura hartu arratsaldeetan, 38ºC edo gehiago baldin baduzu, familiako medikuari galdetu.

3. Ohiko bizimodua egiten hasteko, nola eboluzionatzen duzun ikusi behar da. Familiako medikuari galdetu.

4. Min handia edo iraunkorra baldin baduzu, eta aringarriak hartuta desagertzen ez bada, familiako medikuari galdetu.

5. Interbentziotik bi egunera dutxatu zaitezke, edo zaurien aldea garbitu. Lehenengo apositua kendu. Dutxatu eta zauriak ondo lehortu ondoren, beste aposito bat jarri, edo, nahi baduzu, agerian utzi

6. Ez kezkatu zauriaren ondoan ubeldura-antzeko bat agertzen bazaizu, pixkanaka-pixkanaka kolorea aldatu eta desagertu egingo da.

7. Ez egin esfortzurik eta ez hartu pisurik interbentzioaren ondorengo 4 asteetan.